

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Udal-mailan hizkuntza honen sustapenerako laguntzak arautuko dituen araudiaren zirriborroa aurkeztu zaio Euskararen Nafar Kontseiluari

Iribas kontseilaria izan da buru partaidetzazkoa eta aholku-emailea den erakunde honen gaurko bileran

Viernes, 30 de marzo de 2012

Hezkuntza Kontseilari Jose Iribas Sanchez de Boado jauna izan da buru gaur Nafarroako Jauregian egin den Euskararen Nafar Kontseiluaren bileran. Bertan, udal-mailan euskara erabiltzeko eta sustatzeko laguntzak arautuko dituen foru-dekretuaren proiektua ezagutu dute, besteak beste, aholku-emailea eta partaidetzazkoa den erakunde honetako kideek.



Euskararen Nafar Kontseiluaren irudia Iribas kontseilaria buru dela (erdian).

Proiektu honen bidez Nafarroako Gobernuak aldatu nahi du zuzeneko diru-laguntzen egungo erregimena, Foru Gobernuaren erabaki zehatz bidez ematen dena eta beste edozein interesatuk laguntzak jasotzeko aukera baztertzen duena, deialdi publiko batera pasatzeko; hala, nahi duten tokiko erakunde guztiek izango dute aukera lehiaketan parte hartzeko.

Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetzaren protokoloa

Bestalde, Euskararen Nafar Kontseiluak Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko euskararen esparruko lankidetzaren protokoloa ezagutu du gaur. Dokumentu honen bidez gai honetan bi administrazioen arteko lankidetzaren bultzatzen da, eta bertan argi eta garbi adieraziko da Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Autonomia Erkidegoa bereizitako bi erakunde direla eta administrazio publiko desberdinak dituztela.

Protokolo hau aplikatzeko esparru desberdinen artean azpimarratzekoa da, lehenik, helduentzako euskararen irakaskuntza. Era berean jasotzen du bi administrazioen artean euskararen gaitasun-mailak ebaluatzeko eta egiaztatzeko proben eta sistemen diseinuan lankidetzaren izatea, erreferentzia gisa Europako esparru komuna hartuta, eta bi administrazioen artean batak besteak emandako tituluak onartzea.

Ikerketa eta mapa soziolinguistikoei dagokienez, bi gobernuek batak

besteak biltzen dituen datuak erabili ahal izango ditu, beren komunitateetan euskararen errealitatea islatzeko.

Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak, gainera, elkarri lagunduko diote Espainiako eta atzerriko lege-araudiak euskarara itzultzean. Gainera, biek onartuko dituzte besteak emandako zinpeko itzultzaile eta interpretarien egiaztapenak eta besteak egindako itzulpenen baliozkotasuna. Ildo horretan, bi alderdiek konpromisoa hartzen dute itzulpen-memorien banku publiko bat sortu eta mantentzeko.

Halaber, lankidetzan arituko dira beste arlo hauetan ere: euskal terminologia; informazioaren eta komunikazioaren teknologiak; euskara nazioartean hedatzeko eta atzerriko unibertsitateetan euskarako irakurletza-programak; eta baita hizkuntza honen kultura-sustapenean ere.

Memoria 2011

Azkenik, gaur egindako bileraren esparruan aurkeztu da Euskararen Nafar Kontseiluaren 2011ko Memoria. Bertan jaso dira erakunde honek iaz burututako jarduera guztiak.

Kontseilu honen 2011ko bileretan landutako gaiak azpimarratzekoak dira, besteak beste, laguntzen deialdiak; euskarazko kazetarien praktiketarako lankidetzeta-hitzarmena; toponimiako izendegiak; euskarako eskolak eta helduen euskal curriculumak; argitalpenak; Euskaltzaindiarekin lankidetzan aritzeko hitzarmena; eta Euskarabidearen estatutuak onartzen dituen Foru Dekretuaren proiektua.